



ALDI ETA ALDE GUZTIETARAKO GAKOAK GIZARTE- EKINTZAN: BAKORTASUNA, TRANSMISIOA ETA ERRELEBOA

Elixabete Larrinagaren hitzalditik jasotako gogoetaren gainean hitz egitera bildu gara begi dirdaiez, samin ukitu punttuz eta irtenbidea bilatzeko gakoak esku-buruetan. Jasotako gogoeta sako-narekiko esker oneko, hitz egiteko gogoz, norberak bere leku-denboretatik eskaini nahi lukeena emateko grinaz. Eskarmentu eta bizipen oso ezberdinak batu gara etorkizuneko gizarte-ekintzaren egitekoaz ditugun iritziak partekatzeke. Kultura, helduen euskalduntzea, hezkuntza, ikerketari lotutako buru-eskuak elkarri begira, borobilean. Ospatu berri den HERRI URRATSen kantuak inguratu bagindu bezala. Pello Reparaz eta Erramun Martikorena izendatu eta sentitu ditugu mugako mendikatean zauria zein kantua partekatuz: *Itzulera*.

Gure artea inguratu duen *itsas-argia testigu* izan da bat egin dugula etorkizuna argituko duten jarrerak hiru direla baieztatzen: baikortasunez jokatzea, kalitatezko kultur transmisioa egitea eta errelebo zintzoa.

Tartean-tartean, geldialdiak. Lehena, ELEANIZTASUNA kontzeptua, oro har, hitz hartzeetan baliatu den modua auzitan jartzeko. Jardunaldiak proposatzen duten goiburua ere bai. 2030erako irudikatu nahi litzatekeen “euskaldun eleaniztuna” baino oinarritzkoagoa den kontzeptuan jarri beharko litzateke arreta: 2030eko euskal hiztunarengan. Abiapuntu horretatik, euskal hiztun eleanitz eta kulturantza.

Bada sentipen orokor bat. Hizkuntza hegemonikoekiko aipuak gailendu dira Jardunaldian zehar. Frantsesa, gaztelania, ingelesa... euskararekin batera. Eta gogoeta horretan faltan sumatu da kontzeptu horrekiko izan genezakeen iruditeria

kolektiboa aberastea: Gasteizko errealtate soziolinguistikoa, esate baterako. Argi ote dugu euskararen biziberritzeaz ari garela eta hiztun potentziala irudikatzen dugunean, non eta nozengarririk jarrita dugun jomuga? Eleaniztasunaren diskurtsoan, zein motatako eleaniztasuna dugu buruan?

Gizarte eleanitz bat bagara, dagoeneko. Testuinguru horretan, euskal hiztunak dira ugaritu nahi ditugunak. Geure gizartearen ezaugarriak kontuan hartuta, ezinbesteko zaigu eleaniztasunaren kontzeptua urrunagotik egiten den begiratutik ulertu eta azaltzea. Ofizialak diren eta ofizialak ez diren hizkuntzak, hegemonikoak eta ez hegemonikoak, egitura formaletan irakasten direnak eta ez direnak.

Bigarren geldialdia. Baztertasuna eta bazterkeriaren sentipena erdira eraman da. Euskaldun baztertuak testuinguru erdaldunagoetan. Ofizialtasunik ez duten esparru sozio-politikoetako euskal hiztunak, bazterrean. Iparraldean, egoera are konplexuagoa da. Gizarte frantsestu

da, murgiltze eredu da erronka, eta euskaldunak gero eta aukera gutxiago ditu euskaraz hitz egiteko.

Biziberritze urratsak egiten ari diren euskal hiztun eleanitzak itzaletik urratsak eginez. Hegemonikoak ez diren hizkuntzak dituzten etorkinak ere bazterkeriaren biktima. Ez dago libratzerik. Gutxiagotze prozesuak itsasargiak jotzen dituen leku eta ez-lekuetan daude. Toki guztietan, bazterkeria. Berriz ere, kantura goaz: *Zure zauria nirea da, ta kantu hau biona.*

Milaka hizkuntza eta identitate elkarrekin. Errealitate oso konplexu baten aurrean gaude, eta gure politiketan ezinbestekoa da konplexutasun honi begiratzeko dioten erabakiak hartzea. Herri estrategian ezin ahaztuzko elementua behar luke izan honek.

Eta horretan, euskara zaila izatearen mezu erredundantea. Azken hamarkadetan helduen euskalduntzeak euskararen biziberritzeari egin dion ekarpena ikusezin bihurtu dugu. Heldu euskaldunduek egindako ahalegina alde batetik, eta oro har, helduen euskalduntzeak egindako ekarpen metodologiko eredugarria: hizkuntzaren irakaspenetatik hasi eta ikaslearen integrazio sozio-kulturaleraino. Gizarte honek badio zor handi bat helduen euskalduntzeari.

Hirugarren geldialdia, euskara zergatik? E. Larrinagaren hitzak taldera motzean ekarriz: etorkizuneko biziberritze prozesuan badakigu, gutxi-asko, zer egin; badakigu, nola egin hori; zergatik

egin, ez daukagu horren argi. Euskara zergatik egin argitzen lagunduko liguketan diskurtso berriak behar ditugu. Ados gaude guztiok aurkeztu den hipotesiarekin.

Galdera nagusiari erantzuteko sortu dira galdera berriak. Hizkuntza ofizialak eta, batekoz besteko, hegemonikoak aipatu ditugun gogoeta horietan, non gelditzen dira gurekin batera bizi diren komunitate eta hizkuntza ez dominanteak? Horietako bakoitzari begira jarrita, zein arrazoi emango genieke euskarak balio duela uler dezaten? Zergatik bultzatu euskara komunitate gutxituetan? eta lekuko nahiz kanpoko hizkuntza hegemonikoak dituztenek zein zergati sendo behar dituzte euskara euren hizkuntza ere izateko?

Transmisioa, emozioak, atxikimendua. Horra, galdera zail horri emandako erantzun adostua. Norberaren zertarako eta zergatiak kanpora ateraz, nolabait, erantzuteko ariketa xumea egiten hasi gara. Euskara sutsuki maite zuen herriko abadeak etorri berriak ziren familia eta haurrekin egiten zuen transmisio lana ekarri du gogora gutako batek. Bere bizipena. Etorkinen alaba, euskal hiztun eleanitza gaur. Euskal kanta eta kontuak, topagune eta uneak, dantzak, antzerkia, gurasoen parte hartzea... euskaratik eraikitzen ziren kultur sorkuntza eta ekintza erritualizatuak. Haren esku hartzeak eragina izan zuen herrian. Hunkitu gara bata zein bestea. Denok dugu burutan norbait gugana toki horretatik iritsi zena. Euskararen eta euskal kulturaren transmisioetik gure *txoriarekin mintzatzer*a iritsi zena.

Zertarakoaren gainean itzulinguruka gabiltzan honetan ohartu gara euskararen forma linguistikoek ez gaituztela bereziki, une honetan, arduratzen. Ez gabiltza gramatikaz, forma egoki edo desegokiez, estandarren eta aldaeren auziaz... Euskaraz egiteko norberak ditugun arrazoiez ari gara, eta kulturarekin egin dugu topo aurrez aurre.

Transmisioa. Goitik beherako ariketa da bere ikuspegirik klasikoenean. "Dekonak ez dekonari emotea". Diskurtsoa berritzeko ezinbesteko ariketa. Ipar, eki, hego eta mende. Haizeak jotzen duen leku guztietan, transmisioa. Etorkizunari begira jartzean, ezinbestekoa behar lukeen jarduteko era. Haur eta gazteak bezainbat,

JOSUNE
ZABALA
ALBERDI

EUSKO JAURLARITZAKO HIZKUNTZA
IKERKETA ETA KOORDINAZIOKO
ZUZENDARIA

heldu eta adinduak. Jakintza eta bizipenak, sentimenduak modu sistematiko eta iraunkorren zabalduko dituzten gurasoak eta irakasleak, langileak... ere badira itsasargiak argiztatu beharko lituzkeen jo-mugak.

Transmisioaren ondorioa da atxikimendua. Transmisioa egiteko gotorleku segurua bakarra da, askoren kasuan, ikastetxea. Baina ez da bakarra eta ez litzateke onena izan behar. Gotortzea ixtea baita eta transmisioa mugimendua, zabaltzea. Ikastetxearen ingurumarian eratzen den ekosistemaren ardura izan beharko luke transmisioak: irakasleena, gurasoena, hezitzaileena, herriko eragileena... Gizarte-ekintzaren egitekoa da euskal kultura transmititu eta eskaintzea ikastetxean egingo den lanetik harago edota haren osagarri. Herriko abade hark egiten zuen antzera.


Hizkuntzak badu lotura EMOZIOekin eta hizkuntza horrekiko emozionalitateak identitatearen eraikuntzarekin. Plazer hartu eta ematera garamatzen kanala da kultura, eta? zein da gizartean gure hizkuntzarekiko nahiz besteekiko dugun imaginarioa? Badugu imaginario propiorik? Bada imaginario horiek partekatu eta esperimintatzeko aukera sistematiko eta iraunkorrik? Euskal kultura gainerako kultura eta hizkuntzekin gurutzatzeko aukerarik sortzen ote dugu? Plazer hartu eta emateaz ari garela, jakiteaz harago.

Eta plazeraz ari garela, baikor jarri gara guztiok bat eginez diskurtso positiboak behar direla euskararen biziberritzeari begira: euskal hiztunok euskararen biziberritzearekiko dugun ikusmira positiboa da; gazte euskaldunengandik jasotzen ditugun mezuak positiboak dira. Baikor izan gaitzke, zalantzarik gabe, pentsamenduan.

Ordezkapena, erreleboa. Gazteei pentsatzen eta egiten uztea. Dakiguna dakigula eta gauden tokian gaudela, transmisioetik trantsitatzeko hasi eta lekuak uzteko prest al gaudete? Euskararen gizarte-ekintzak ariketa ausart hau egin beharra dauka: erreleboa gazteei ematea. Kateak jarrai dezan ezinbestekoa: Martikorena eta Reparaz gure ahotan. Iragana kontuan hartu eta presentzia eman nahi izan dion gaztearen sorkuntza lana: *Itzulera*. Iparra eta hegoa. Txalaparta eta sintetizatzaileak. Tradizio dantza berrikuntzaz jantzia...

Hitz hartze baten gainean beste bat. Aurrera eta atzera itzuliz aurreneko ideia. Marraztu dugu denon artean halako egitura perfektu itxurazko bat baikortasuna, transmisioa eta erreleboa zutabeek eusten dutena:

1. Haurtzaro eta gaztaroaren garaia. Ikastetxean, gurasoen ingurumarian gertatzen diren bizipenak biltzen ditu garai honek. Kultur transmisioaren eta hizkuntza gaitasunaren bermea izango litzatekeen lehen zutarrria da: etxekoen, irakasleen eta gizarte ekintzaren ardura beharko lukeena. Mantentze edo murgiltze ereduak zutabe honi begira aurrera egiteko dituzten aukeretan sakontzea litzateke aberasgarria: gelako jarduerak, gelatik kanpokoak, esku-liburu edo ikus-entzunezkoetan agertzen diren edukiak, jai antolatuetako mezu nahiz ekintza esanguratsuak, gurasoekiko harremanak eta ematen zaizkien mezuak...
2. Gaztaroaren garaia. Lanbide heziketa dualak, unibertsitateak eta lantokiak hartuko lukeen lekua. Profesionalizaziozko lehen urratsak egiteko aukera emango dion zutarrria. Ekintzailetasunerako aukerak eta espazio nahiz harreman berriak. Euskaraz egin duen ibilbideak jarraipena izateko bermea eman beharko liokeena. Euskara aberastu eta euskaraz lan egin zein bizitzeko aukerak behar lituzkeena. Euskararen



biziberritzean, erreleboa hartu eta proposamen berriak egiteko boteretuko litzakeena. Etapa estrategikoa da hau eta bada honetan zenbanahi sakontzeko beharra gaztaroaren zutabearen ere modu sistematiko nahiz iraunkorrean eragin dezagun gizarte-ekintzatik.

3. Helduaroaren garaia. Lan egin, bizi, harremandu eta ondorengoetarako mementoa. Euskara ikasi eta hobetu, euskara irakastearen ardurak hartzeko aukera emango dion zutaria leukake helduak. Transmisioaren parte eta gazteak botere-tzen laguntzeko bide-lagun. Etorkizuna marrazten laguntzen duten baliabideak, harremanak, produktu kontsumigarriak,

diskurtsoak behar dituen zutabe heldua da. Gizarte-ekintzatik ere landu beharko litzatekeena.

Garaiak banatuta erakutsi badira ere, ezinezko gertatu zaigu elkarren arteko harremanik gabe azaltzea. Bakoitzak bere indarra egin dezan estrategia propio eta berezitua behar badu ere, elkarreraginean ikusi ditugu hirurak. Zirkulazio perfektu baten mugimenduan.

Hala, zirkulazio perfektuan dabilen egitura zirriborratzen ari garela, nolazpait oharkabea, elkarri gainjartzen dizkiongun esan nahietan solasean gara, positibotasuna borborka. Marrazki handia egiten ari garela, taldekide batek “ametsa” aipatu du legea gogora ekarri duenean. “Egoera gutxituen helduleku indartsua da legea. Legeak babestua izatea; legea bete dadin gertatzea nahi nuke”. Denbora amaitzear zitzagun horretan entzun dugu ametsa. Isilik gelditu gara. Begi eta buru mugimenduek onarpena eman diote ametsari, eta horretan utzi dugu, irribarrez, gure arteko solasaldi atsegina.